

Arratia Futbol Taldea Lurrealdeko Ohorezko Mailara igon da

11. orrialdea

Erakusketea Igorren

Hilaren 12tik 31ra, Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan, *Yurre-Igorre 1936/1937 Badira larogei udabari* izenpean, urte hareetako gertakizunen memoria jasoten dauan erakusketea egongo da ikusgai. Gerra Zibilaren hasieran igorretarrak eukien ikuspegia emoten dau, hainbat dokumentu eta artxiboren laguntzeagaz. 13. orrialdea



Naia Totorika, Arratia Futbol Taldeko kapitainari, alkarrizketea

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

274

2017ko maiatzaren 16a
hamabostekaria
www.begitu.org

Musika akustikoa Lemoan eta Blues & Beer jaialdia Areatzan

Maiatzaren 20an Lemoan musika akustikoko jaialdia ospatuko da. Hilaren 24tik 27ra barriz, Blues and Beer

Areatzako Nazinoarteko Jaialdia. Areatzako blues musika eta Euskal Herrian egindako garagardoak batuko ditu. 5. eta 7. orrialdeak



Travellin' Brothers taldeak Areatzan joko dau.

Zeanurin deitutako %55ek erantzun deutse GEDren itaunari



Jai giroan eta eguraldiak lagunduta, maiatzaren 7an, 583 zeanuritarrek "Euskal Herri independente bateko herritarra izan gure dozu?" itaunari erantzun eutsien. Baiezkoa 532 herritarrek emon eben, ezezkoa 15ek, boto zuria 30ek eta balio ez eben 6 boto egon ziran. Hamasei urtetik gorako 1.057 lagun egozan deituta, eta partaidetza %55,16koa izan zan.

Umeentzako tailerrak, bertsolariak, herri kirolak eta kantuak be egon ziran.

Antolatzaileak pozik agertu dira emoitzeagaz eta galdeketeak, herria kohesinatu daua uste dabe. Dimatik jasotako lekukoa Areatzari pasau eutsan Zeanurik, Areatza izango da-eta, Arratian Euskal Herriaren independentziaren gaineko galdeketea egingo dauan hurrengo herria. 8. eta 9. orrialdeak

IGORRE

Suak kiskalitako boulderra eraisteko lanak hasi dira

Segurtasun arazoak ekiditeko, boulderra eraisteko lanak maiatzaren 15ean hasi zirala iragarri eban Igorreko Udalak.

Maiatzaren 5ean, apropos egindako su batek boulderra kiskali eta kalteak eragin ebazan udaletxean eta frontoian. Udaletxean, kristalak apurtu, elektrizidadeko kableak erre eta berogailuaren kalderak kaltetu ziran. Frontoiko kalteak, itxura baten, arinak izan ziran. Udalaren estimazioen arabera, 140.000 eurotik gora erre dira. Udalak salaketaz gain, "beharrezkoak diran ekimen legalak ipiniko ditu mar-tan". Ustezko egileak adin txikikoak diranez, guraso alkarteai Bizikidetzeta mahaira hurreratzeko deia egin deutse Udalak. 5. orrialdea

IGORRE

Iñaki Zarraoa, Garbiñe Biurrun eta Ibon Arbulu egongo dira Kultur Etxean

Igorreko Gure Esku Dago taldeak "Ebazteak egiten gaituelako herri" izeneko berbaldia antolatu dau maiatzaren 25erako, arrastiko 19:30ean, Kultur Etxean. Iñaki Zarraoa, Garbiñe Biurrun eta Ibon Arbulu izango dira hizlari. Berbaldiaren helburua, igorretarren artean erabakitzearen eskubidearen inguruan eztabaidak sortzea da, 2018an herri galdeketea egin ahal izateko. 7. orrialdea

IGORRE

Aurrekontuak egiteko batzarrak deitu dauz Igorreko Udalak

Aurrekontu parte-hartzaileak egiteko modua aldatu dau Udalak eta fase bitan egingo dira batzarrak: maiatzean eta urrietan. Hori dala-eta, maiatzaren 16tik 25era bitartean, 9 auzo eta sektore batzar egiteko egutegia aurkeztu dabe. Batzar honeetan, jagokon auzoko informazioa ezezik, beste auzo eta batzarretako informazioa be emongo dabe Udalekoak. 6. orrialdea

VOGUE ROXY GUESS POLICE GOLF CEBE SIVAT V&L RIBON

Varilux kristalen promozio berria monofokal zein progresiboetan.

Erdu eta galdetu baldintzak.

Zure 2. kristal pareta opari

VARILUX

Olaxte OPTIKA ZENTRUA

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)

94 657 70 03 olaxteoptika@hotmail.es

ARRATIA KOLOREETAN

ARGINATX MENDI ELKARTEA

Arginatx Mendi Elkartea 2009an sortu zan Arantzazun. Hasieran giti batzuk baginan be haziz joan da gure familia eta egun 102 bazkide gara Arginatx osatzen dogunak, gehienak herrikoak bertakoak eta kanpotik etorritakoak be zelan edo halan herriagaz hartu-emon daukienak. Urtean zehar egutegi oparoa izaten dogu, beti be Arginatx osatzen dogunon aniztasuna kontuan hartuta. Holan, urtean zehar umeentzat beren-beregi antolatutako urtekera, ibilbide biko (bata gatxagoa eta luzetxoagoa eta bestea errez-errez) urtekerak, bazkaltzen gelditzekoak... eskeintzen doguz.

Inguruko mendi taldeakaz be

sarritan antolatu izan doguz ibilaldiak, edo inok antolatutakoetan parte hartu dogu.

Baina mendian ibiltzetik aparte, gure herriko bizitzan errotutako talde bat be bada geurea; herrian zeozer dagoanean lagunduteko bere burua eskeintzen dauana. San Juan suan edo sanpedrotako ospakizunetan beharrean fin ibiltzen gara eta herriko beste alkarteakaz alkarlanean hainbat ekintza antolatzen doguz. Maiatzaren 20an Lekeitiora egingo dogun txangoa da horren adibide (guk geure ibilalditxo proposatu dogu bazkal aurretik, klaro!).

Dana dala, gure egun handia, sanfaustoetako jaietan Arantza-



zuko Mugari Bira antolatzen dogunean izaten da. Bira egiten jente pilo hurreratzan da, eta zer esanik

ez osteko baba-janera! Azken baten, hauxe da Arginatx: mendia ardatz dauala, herriaren

alde egiten dauan alkarte.

Gure egutegia

Maiatzak 20: Lekeitio (Kultur Bartzordeak antolatuta); bagilak 3: Orisol; bagilak 17-18 (asteburupasa): Valle de Pas; garagarrikak 15: San Juan de Gaztelugatxe; urri lehenengoak 10: Gorbeira Muruatik; urri lehenengoak 23: Aralarrera Huar-tetik (bazkariagaz); urri bigarrenak 14: Arantzazuko Mugari Bira (ostean baba-jana); urri bigarrenak 29: Arratia, Otxandio, Ubide eta Zeberio mendizale eguna; zemendiak 19: Santiagotar (Bedia); abenduak 16: urte amaierako urtekera.

Arginatxegaz etori gura badozu ez zaitugu ate zabalik etongo... mendian egongo gara, eta han ez dago aterik!

Arginatx Mendi Elkartea
(Arantzazu)

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Maiatzaren 15etik 21era

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Guarrobena. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 22tik 28ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 29tik bagilaren 4ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren

902 543 210

Areatzako Notarriotza

94 673 92 26

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urtekerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Illart Gumuzio.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Ines Arenas, Iker Perez eta Ismael Martínez (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tirada: 7.000 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Lasterbidean bagilaren 4an

Lasterbidean korrikaren kirol eremutik jaiotako euskal errepresalidua duakazko eta beren gertukoakazko alkartasun herri ekimena da eta guztiak urruntasunetik etxerainoko bidea egin arte herrialdez herrialde egingo dogu lasterka.

Preso politiko guztiak etxeratu arte pausu sendoak emon behar dira eta ekimen hau, pausu bat besterik ez da, beharrezkoa dan pausua alegia.

Lasterbidean ospatu behar ez izatea izango litzateke gure helmuga, gure ametsa, horrek suposatuko leukelako kartzeletan bahiturik doguzan ahizta eta nebak geugaz egongo litzatekezala, etxean. Hori lortu bitartean, aurtengo edizinoari ekingo deusagu, oraingoan Gipuzkoan, bagilaren 4an, Oñatin, hain zuzen be.

Aurtengo edizinoak barrikuntzak izango ditu; betiko lasterketa luzeaz eta laburraz gainera, patinen lasterketa bat be izango dogu eta. Edozeinek parte hartu leike lasterketetan korrika eginez zein egunean zehar dagozan erakustaldietan, bazkarian edo kontzertuetan. Guztion pausuak ezinbestekoak dira eta horregaitik Arratiako txoko guztietara zabaldu gura dogu deialdia eta konbitea. Bagilaren 4an, guztiok batu gaite-

zan euskal preso politikoen kalekatzearen alde.

Lasterketa luzerako zein patinen lasterketarako izen emoteak zabalik dagoz daborduko www.herrikro-sa.eus webgunean, baita bazkariko txartelak hartzeako aukerea be. Lasterketa laburrerako, egunean bertan emon behar da izena.

AINGERU ARTETXE, XABI KANTSAU
ETA GUILLERMO MARAÑON "TXIKI"
ARRATIAKO LASTERBIDEAN-EKO KIDEAK

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:
Zertu Kultur Elkarte
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

ERETXIA

Zergaitik oroitu?

Askotariko taldeak sortu dira aspaldi honetan "memoria historikoa berreskuratzeko" ekimenak gauzatzeko. Batzuen ustez, honek guztiak ez dauka zentzurik, iragana iragana dalako eta ez dagoalako zertan ibili gauzak nahastuten. Iragana gertatu zan baina, W. Faulkner idazleak esan eban legez "iragana ez da inoz igaro, iragana be ez da, orainaren dimensino bat da-eta". Honek esan gura dau iraganak modu askotako eragina daukala oingo momentuan eta gure etorkizunaren parte be badala. Atzo bizi izan genduanari gaur emoten deusagun zentzuak ezartzen ditu gure gizarte identidatean, segidak eta hausturak; zer garan, zer gara- la uste dogun, zer izan gura dogun eta zer izateari itxi gura deusagunaren oinarriak ipiniz.

Zergaitik gogora ekarri orain 80 urte gertatutako Zeanuri, Igoerre eta Dimako bonbardaketak, eraikinetan egindako kalteak konponduta dagozanean; biktimak, akaso, ez dabenean gura izango sufrimentua gogoratu, edo hildakoak bakean dagozanean? Zergaitik egin omenaldi ekitaldiak edo bagilean Lemoatxeko batailea gogora ekarri? Ba, memoria soziala funtsezko esparrua dalako demokrazian eta Giza Eskubideetan oinarritutako gizartearen eraikuntzan.

Oroimena estu lotuta dago giza bizitzari zein bizitza sozialari; gizarte guztiak gogoratzen dabez iraganeko gertaera eta une garrantzitsu batzuk, eta hori egingo ez balebe, ezinezkoa izango litzateke jarraipena, ezagupenen transmisioa eta identidatea osotuten dabezan ezaugarri eta balioen adierazpena. Memoria, eremu politikoa be bada: izan be, gizarte bizitza ulertu eta proiektetako iraganaren kontakizun desbardinak dituen taldeak parte hartuten dabe bertan. Beraz, demokraziaren eta demokraziarentzako ezinbesteko baliabidea da.

Memoriak bidea emoten dau



LUZ MACEIRA

Memoria Historikoko ikertzailea

gizarteak bizi izandako gertakizun batzuen barri jakiteko eta landuteko. Baita, bersino desbardinakaz, bersino sinplisten kontrako kontakizun konpleju bat osotuteko be. Eta bidea be emoten dau giza talde baten iragan, orain eta etorkizun diran historia eta esperientziak talde desbardinak kontau dagiezan eta esangura emon deieen. Demokrazia baten, baliabideak behar dira gizarteak oroitzen dauanari persona eta talde guztiak ekarpenak egiteko.

Gainera, "memoria historikoa" edo gertaera historiko batzuen ezagutza edo oroitzapena Giza Eskubide kontua da. Iragana jakitea eskubide bat da eta egia, justizia eta erreparazioa behar daben gertaera traumatikoak diranean, ahal dan guztia egin behar da prozesu honek bideratzeko. Biktimak euren eskubideak erabili behar dabez eta horretarako baldintza egokiak behar dira urte luzeetako bildurra eta isilaldia edo justizia egin gura dan gizarte inguru baten federik eza edo gortasuna gainditzeko.

Arratian egiten dabizan omenaldiak adierazoten deuskue, persona desagertu edo fusilauak gure artean dagozala, euren duintasun guztiagaz. Hile honeetan egindako ekitaldiak balio izan dabe gertatutakoa barneratzeko, arteztu, egoera iraingarriak prebeniduteko eta alde positiboak mantenduteko. Holango ekitaldietan "erresistentzia", "babesa", "alkartasuna", edo "antifaxismoa" asko erabilten diran berbak izaten dira, eta orain 80 urte bailaran gertatutakoaren oroimenaren gaur egungo balio edo erreferentziak dira. Kontzeptu horreek oraindira ekarritako praktikak dira, behin eta barriro errepikatzen diranak, XXI. mendean indarrean egon daitezala gura dogulako. Ekitaldiotan urteurren mingarria ikasbide bihurtzen da, gizartearen altxagarri: gizartea inspirau, konzientzia kritikoa sortu, eta justizia eregiten dauz-eta.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Behinik behin



Behintzat edo sikan esangurak dituan lokailua da behinik behin, eta esaldien hasieran edo amaieran jarrita joaten da (béñepein, béñepin, béñipein, agoskatuta). Batuan, bederen da. Arratian, beste egitura honeetan be jaso dogu: behin-behin, behinik behinean... Adibideak: "Aitak esaneko berbak entzun, behinik behin!" edo "Behinik behinean, ez dau euririk egingo, kanpora urtetako".

LUMATUTEN



IGOR ESTANKONA

Amuriza!

Gotzone Amuriza! urten jatan erraietatik orduko goizean. Hiru umeak eta ni eskolarantza goiazan tirintarran, txikerrenak sorbaldetan gure, erdikoak be bai, nagusiak be bai. Ze ordenetan heltzen garen mundura, zertzuk diren zeloak, udabarriko goiz majiko haretan erreka baztarreko zebra bidetik ze arin joian Gotzone Amuriza, nire txikitako laguna, nire betirako laguna, bere haurdun tripa ta guzti.

Bakotxa bere prisakaz ebilen, baina seguru Merkurio han ikusiko zala, gero eta altuago martiak aurrera egin ahala. Eta Artizarra gero eta amatatuago Piscisen, eguzkiak atzerik hara emonda.

Igor Estankona! berak. Bardin-bardin bere begi baltz amaibakoak.

Hile batzuk lehenago, Tolosako harategi batean, bertakoek esan eustien badagan neska bat zure modu-moduen iten dauena berba. Bueno, egia esan ez eustien hori esan, esan eustien:

zure modun hitzeitendun neska bat etortzea honea batzutan.

Eta nik nire artean: Gotzone Amuriza! Ze ordurako Maite Yurrebasok esanda euki eustan Tolosartu egin zala. Amak be ikusi eban Marianjeles Arratia Kantuzen-edo, eta pasau eutsien batak besteari seme-alaben partea.

Holan izaten da askotan: hamar urtean alkar ikusi ez, eta egun berean bi bider. Eguerdi aldera barriro kotxetik ikusi eta preguntau neuntsan: eta nozko? Eta otu jatan aprile tertzio sano ederra bugaboorako. Haizetxu bat ibiltan da Arratiatik honantza datorrena gero Uzturretik behera bajatan dana etimologikoki batuz moduan Iyorre eta lurremendi, aprilean. Eta aprile orduko Olatz Landajo baltz egoten da. Konprobatu neban beste behin, bisitan etorri zanean jaiio barria ikustera, bere familia ederragaz.

Badaki Gotzone Amurizak erditzearen gogorrari, bizitzaren antzera, loreak urtetan jakozala halako batean. Eta orain egiten deustie lo ta lo, antza, eta titia hartu. Loterie.

Gotzone Amuriza!

Aritz Zubiateren urtegunean patioan plastikuzko baloi bategaz olgetan danok, aprilean.

ZERTZEAN



UNAX IRAZABAL

Zure

Begiraden pausalekua, oldozpenen abarora, ametsen txokoa, desiren kaia, laztanen topagunea, irrien iturria, sekretuen gordelekua, beldurren erbestea eta lasaitasunaren aterpea izan nahi nuke. Zure begietan gatibu egonik, betiko libre izateko.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Hilaren 28an Goazen musikala egon zan Igorreko Kultur Etxean. Ordurako jenteak hainbat eta hainbat ordu emon ebazan euripean sarrerak lortzeako. Saio bi egon baziran be sarrera guztiak amaitu ziran.

Marie Ozerin ostera, ez zan goizetik jaiki behar izan. Baeukan sarre-rea hileokaz! Goazenekoak egoteko aukerea euki eban bakarra be bera izan zan.

Zeuon buruai galdetuko deutsezue... Zergaitik? Igorreko neskarik politena dalako? Igorreko azkarrena dalako? Igorreko atsegina dalako? Ez! Baina izan, bada! Errazoa jakin gurako dozue honezkero ezta? Igorreko inauterietako mozorro onenaren saria eroan ebalako! Zorionak Marie!

Naiara Zurinaga



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Blokaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbaita 101
R.P.S. 21/06

Beer & Edariak s.l.

HEINEKEN SOLARES

Polig. Mendaketa, n.º 3. 48550 IJESMOA, Bizkaia
Tel: 000-480-839-000/000-717

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ARRATIA

Arratia homofobia, lesbofobia eta transfobiaren kontrako burrukan

1990eko maiatzaren 17an, gaixotasun mentalen zerrendatik kendu eban homosexualitatea Osasunaren Mundu Erakundeak. Horregaitik, maiatzaren 17an, Homofobia, Lesbofobia eta Transfobiaren aurkako Nazinoarteko Eguna ospatuten da.

Erredakzioa

Hori dala eta, Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) adierazpen instituzionala onartu dau, orientazio sexuala eta genero identitatean oinarritutako diskriminazioaren aurkako burrukan daukan konpromisoa berresteko.

Horren adibide, AUMko Berdintasunerako Ordenantzea dala dinoe Mankomunitadetik. "Izan be, helburua andren eta gizonen berdintasuna lortu eta identitate eta sexu aukeren ugaritasunaren aitortza ahalbideratzea da Arratiako herrietan". Horretarako, ikasturtean zehar, Arratiako Hezkuntza zentroetan; Igorre eta Lemoako institutuetan eta Lanbide Heziketako Zulaibar Ikastegian, aniztasun afektibo-sexualaren gaineko tailerak egin ditue ikasleak.

Bestalde Berdinu! Programa zabalduen jarraituko dabe, "ikas-texetako orientatzaile, aholkulari, zuzendari, irakasle eta ikasleak arreta eta prestakuntza emoten jarraituteko". Izan be, Berdinu! Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu publikoa da sexu eta genero aniztasunagaz zerikusia daukien gaien inguruan informazioa eta arreta



emoteko. Datorren ikasturtean be tailerak emoten jarraituteko asmoa adierazo dabe AUMtik.

Bullying homofobia

Gurean, LGTBQ (lesbiana, gay, transexual, bisexual eta queer) taldeko personak eta heterosexuak lege eta eskubide bardinak izan arren, oindino be indarkeria sufriduten dabe askotan. Espainiako LGTB federazioaren arabera, talde honeetako gaztearen erdiak baino gehiagok, eskola-jazarpene jasaten dabe euren orientazio sexualagaitik.

ARRATIA

Arratiako ikastetxe publikoak grebara deituta dagoz hilaren 16 eta 23an

Erredakzioa

ELA, LAB eta Steilas sindikatuak, EAEko Hezkuntza publikoan, egun bitako greba deialdia egin dabe. Maiatzaren 16 eta 23an izango dira lan ixteak eta grebaz gainera, sindikatuak manifestazioak deitu ditue hilaren 20an, Bilbon, Gasteizen eta Donostian. Grebara, irakasleak, Heziketa Bereziko langileak, sukaldari eta

garbitzaileak eta Haurreskolako Partzuergoko hezitzaile eta langileak dagoz deituta.

Sindikatuak mobilizazio honetara deitu ditue Eusko Jaurlaritzari, hezkuntza inbersinoak handitu, LOMCE Euskal Herriko ikastetxeetatik atera, Heziberri bertan behera itxi, irakasleen plantilea handitu eta ikasleratioak %10 murriztu dagiazala eskatzeko.

LEMOA

LemoaKUSTIKfest hilaren 20an

Erredakzioa

LemoaKUSTIKfest2017 izenpean Lemoako Udalak musika akustikoaren jaialdia antolatu dau. Lemoak musikeagaz daukan erlazioaren gaineko hausnarketea egin eben eta jaietatik kanpo, musika zuzenean eskeintzeko jaialdiren bat beharrezkoa zala jo eban Udalak. Hortik sortu zan Lemoakustik Fest.

Jaialdia musikarien lana eta herriaren arteko sinbiosia izatea gura dabe. "Formatoa akustikoa izango zala jakinda Bizkaia arakaten hasi ginan, batez be, bakarlarieen bila. 20 izen topau genduzan eta aukeraketea egiten hasi ginan beti kontuan izanda, guk bigarren eta hirugarren eta laugarren edizioak antolatu gura doguzala" azaldu deutso BEGURI Izkander Fernandez zinegotziak.

Kartela osotuteko erispideai jago kienean, formatu akustikoa erabilten daben musikarien kalitatea eta ugartasuna dirala esan daiteke. Mobydick-ek Bilbao Hiria saria irabazi eban formato akustigoagaz. "Estankona beharrezkoa zan, geugaz hainbat proiektutan egon dalako eta akustikoak eskeintzen ditualako" dino zinegotziak. Margo Gilker estadiatuarra da, baina atzen urteotan Bizkaian bizi izan da

eta kontzertu ugari emon ditu formatu akustikoan. Madrilko Manuel L. Sacristán (Hotel Valmont) konbidatzeko aukerea izan eban Udalak eta Euskal Herrikan kanpoko musikariak konbidatzeko ebatzia hartu eban. Maria Rivero eta Karla Imbert bizkaitarrak dira eta akustikoan jotzen dabe. Eta Highlights taldea, Bilbao Hiria Sarian bigarren gelditu zan eta Bizkaiko rock panoraman, "talde interesgarrienetako bat da" Fernandezek arabera.

Goizetik gauera

Lehenengo kontzertua goizeko 11:00etan hasiko da eta azkena 22:00etan eta Lemoako hainbat guretan izango dira.

Karla Imbert sopoloztarra izango da lehenengoa. Kontzertua liburategian izango da. Ingelesean kantetan dau abots gozoagaz. Bere lehenengo lana *Prague* izenekoa Laponian sortu eban eta sare sozialen bidez egin da ezaguna.

Ondoren, 12:30ean, Hotel Valmont-ek eskolako aterpean joko dau. Taldea 2008an sortu zan eta 2011n grabatu eban bere lehen diskoa *Señales*. Gero, *Doble trampa* (2012) eta *Directo en Rock & Pop* (2013) etori ziran.

Ordubietan, Kulturguneko kantxan

Maria Riveroren txandea izango da. Siroka taldean eta Hutsa bikotean ibili ondoren, Maria Rivero, sano kritika onak jaso dituan *Kintsukoroi* bakarkako errefujiaduen aldeko proiektua aurkezten dabil aspaldi honetan. Hurrengoa Margo Gilker-en kontzertua izango da, 17:00etan Batzokian. Estadiatuarraren lehenengo diskoa, *Boots and Spain and boots again* da. Gilkerren ostean, arratiarraren txandea. Estankona artezatarra 18:00etan izango da Kresala tabernan. Hiru disko ditu kalean, *Estankona*, *Fruitua* eta *Ardatza*. 19:00etan, Atxeta tabernan, MobyDick, Getxoko Eneko Burzakok, bere kantu propioak eta genero askotako bersinoak eskeiniko ditu. Eta akustikoaren jaialdia amaitzeko, 22:00etan, Highlights Arriorriagako hard-rock bandak Gaztetxean joko dau.



Borja Estankona.

IGORRE

Segurtasun kamarak boulderrari su emon eutsanak identifiketan lagunduko dabe

Erredakzioa

Beinat Anzola Igorreko alkateak azaldu dau grabazio baten ikusten dala maiatzaren 5ean boulderra kiskali eban sua apropos biztu ebalaz gazte batek. Kalteen zenbatekoa oindino kalkulau barik dagoan arren, boulderra 119.000 euro kostau jakien igorretarri eta horrerri suak udal-terean eta frontoian egindako kalteak gehitu behar jakoz. Udalak salaketea ipiniko dau eta grabazioan gazteak identifikatu ostean, gurasoak be batzartuko dala dino alkateak.

Grabazioan argi geratzen da beste gazte batzuen aurrean batek apropos biztu ebalaz sua. "Txiskeroagaz pare bat lekutan su emoten saiatzen dala ikusten da. Momentu baten, lurretik hartutako papel edo plastiko bat be sartzean dau. Atzenean, suak ondo hartutakoan, alde egiten dau". Gazteak adin txikiak emoten dabe eta guraso batzuk euren seme-alaba eurretako bat izan eitekelakoan, ipini dira kontaktuan Udalgaz.

Sua handia izan zan eta kalea 21:00etatik 23:00etara zarratuta

egon zan, suhiltzaileak sua amaturu eben arte. Inor ez zan zaurituta suertatu, baina kalte materialak handiak izan dira, 140.000 bat eurokoak gitxienez Udalan egiten dabizen estimazioen arabera. Boulderra guztiz kiskaltzeaz gainera, udaletxean, kristal batzuk apurtu egin ziran eta elektrizitateko kable batzuk erre. Berogailuaren kalderak be kaltetu ziran. Frontoian, itxura baten, kalte txikiak eragin eban suak.

Bizikidetzak Mahaia

Sutearen uestezko egileak adin txikiak dirala kontuan izanda, Igorreko Udalak herritarrei lasaitasuna eta "ulergaritasuna" eskatu eutsezan maiatzaren 10ean egindako adierazpenetan. "Bideo zintak Ertzaintzaren aurrean aurkeztutako denuntziari atxikitu jakoz eta beharrezkoak diran lan eta ardurak hartzeako eta persona honeen identifikazio ofiziala burutzeko lanean dabilz". Sortutako kalteak ikusita, denuntziak gainera, Igorreko Udalak orain eta aurrerantzean beharrezkoak diran ekimen legalak martxan ipiniko dituala adierazo

dau, "herritar guztiok sufridu dogun injustizia hau lehengoratu arte".

Boulderrari su emotea adin txikiak egindako lehen ekintza bandaliko ez dala eta Udalak holangorik gehiagotan ez gertatzeko beharrezko dabilala jakinarazto dau. Zezeilan, gazteak izan beharrezko bizikidetzak arau eta baloreen inguruan hausnartzeko, Bizikidetzak Mahaia eratu eben herriko ikastetxeetako zuzendaritzak eta Udalaren artean. Ekintza bandaliko honen ostean, Udalak bilera deitu dau, guraso alkarteak konbidatu. "Mahai honetan guraso alkarteak be bertaratzeko ezinbestekotzat dogu eta datozen egunotan batzorde honen bilera deituko dogu pausu azkar eta eraginkorrek egiteko asmoagaz".



LEMOA

Lemoaztarrak Zornotzako Larreako ugerlekuak merkeago erabili ahal izango dabez**Erredakzioa**

Lemoak Udalak eta Zornotzakoak hitzarmen bat sinatu dabe, Lemoan errolatutakoak Zornotzako Larrea kiroldegiko ugerlekuak erabili dagien, Zornotzan errolatutakoaren prezio berean; urteko, sei hilabeteko edo hiru hileko abonua

egin ezkerro.

Hau da, ugerlekurako abonua egitean, Zornotzan errolatuta dagozan erabiltzailei apliketan jakien kuota aplikauko jakie Lemoakoai, kiroldegiko ugerlekuak, aldagelak eta dutxak erabilteko. Abonua egiteko Lemoako errola zurtagiria aurkeztu behar da.

ARRATIA

Udalekuetako begiraleentzako prestakuntza tailerra Igorren

19ra arte emon daiteke AUMen. Hezkidetzaren helburuak dira genero desbardintasunak desagertu arazotea, umeen sozializazioa bardintasunean oinarrituta egotea eta identitate aniztasuna errespetetea, beste batzuen artean. Horregaitik ez da bakarrik eskolan landuteko, heziketa arlo ez formalean be behar-beharrezkoa da helburuak bete ahal izateko. Andrazkoen kontrako indarkeria prebenidutako oinarritzkoa da Hezkidetzeta.

Udalekuetako beharginentzat

Formazioa Gizonduz-ek emongo dau. "Horrek ez dau esan gura mutil eta gizonentzat bakarrik danik, neska eta andrentzako be bada" dino Xabier Pastor AUMko Bardintasun Teknikariak. Izan be, udalekuetan behar egiten daben behargin guztientzat da, ume eta gazteakaz behar egiten dabeneztat.

Gizonduz Eusko Jaurlaritzaren ekimena da gizonak sexuen arteko bardintasunaren alde konzientziazteko eta euren parte hartze eta inplikazioa bultzatzeko.

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Berdintasun Arloak udalekuetan behar egiten dabeneztako Hezkidetzeta lantzeko prestakuntza saioa antolatu dau maiatzaren 27rako, hezkuntza ez formalean be gizon eta andren arteko bardintasuna landutea beharrezkoa dalako. Igorreko Kultur Etxean izango da saioa 10:00etatik 14:00etara eta izena hilaren

ZEBERIO

Udalak informatikako ikastaroak eskeiniko ditu uda ostean**Erredakzioa**

KZ Gunearen bitartez, urrietan, informatika ezagutzarik ez daukientzako dobaneko ikastaroak

antolatu ditu Zeberioko Udalak. Aurten oinarria eta datorren urtean jarraipena egingo dabe. Izena bagilaren 30a baino lehenago emon behar da udaletxean.

Oinarritzko mailan, ikasleak, ordenagailua, internet eta posta elektronikoa erabilten ikasiko dabe. Ikastaroak urri lehenengoaren 18tik 29ra, asteleheneetik barikura, 09:00etatik 11:00etara eta 11:00etatik 13:00etara, eta urri bigarrenaren 18tik 29ra, 18:00etatik 20:00etara izango dira. Taldea sortzeako, 6 personak gixtinez emon behar dabe izena.

IGORRE

Aurrekontuak egiteko modua aldatu dau Udalak

2016ko aurrekontuetako panelak Igorreko erdigunean.

Aurten, aurrekontu parte-hartzaileak egiteko batzarrak fase bi izango ditue.**Erredakzioa**

Maiatzaren 16tik 25era bitartean, auzo eta sektore batzarrak egingo dira, erdigunekoak be errekuerauz. Bigarren fasea, urrietarako dago aurreikusita. Fase honetan, herritar guztientzako batzar zabala egingo dabe eta han, maiatzean zehar batutako eskaera guztien barri emongo dabe udal ordezkariak.

Maiatzeko batzarretan, Udalak jagokan auzoko informazioa ezezik, beste auzo eta batzarretako nondik norakoak be emongo dauz jakitera. Holan, igorretarrak euren eskarietatik aparte, gainontzeko herritarren eskaera, keja eta beharrak zeintzuk diran be jakingo dabe.

Auzo eta sektore batzarrak
Urkuzu-Garakoi auzokoak, maia-

tzaren 16an, 19:30ean daukie hitzordua Urkuzuko Txokoan. San Juan auzokoak, hilaren 17an, 18:00etan, San Juanekoan. San Kristobalekoak, maiatzaren 17an 19:30ean, San Kristobalگو txokoan eta erdigunekoak hurrengo egunean, maiatzak 18, 19:30ean, Kultur Etxean. Garbe eta Mikelekoak hilaren 18an, 19:30ean dagoz deituta Gazte-txean eta Gezala, Basauntz eta Basartekoak maiatzaren 23an, 19:30ean Pleno Aretoan.

Sektore batzarrai jagokienean, lehenengo gazteakaz izango da maiatzaren 18an, 18:00etan Gazte-txean. Jubiladuakaz barriz, hilaren 24an, 18:00etan Jubiladuen Txokoan batuko dira udal ordezkariak. Azkenik, Kultura eta Kirol batzarra maiatzaren 18an izango da 19:30ean Kultur Etxean.

LEMOA

Arantxa Tapia, Arratiarrakaz berbetan zikloan hizlari**Erredakzioa**

Arantxa Tapia, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburua, maiatzaren 23an, 19:30ean, Lemoako Jubiladuen etxearen gaineko aretoan izango da, industriaren beharrez eta erronkez, lehen sektoreaz eta Arratia, Bizkaia eta Euskadiko azpiegiturez berba egiteko. EAJ-PNVk antolatutako *Arratiarrakaz berbetan* egitasmoaren laugarren hizlaria da Arantxa Tapia.

Arratiarrakaz berbetan izenburua daroa Arratiako EAJ-PNVk 2017 urtetarako antolatu dauan berbaldi zikloak. Egitasmoaren helburua, Arratiako udalerrietara

politikaren arlo desbardinetan dabizan personak hurreratzea da, biztanleakaz erakundeetako agendak marketan dituen eta gizartea kezkatzen dituan gaien gainean berba egiteko.

Jeltzaleen arabera, "berba egitea da kontua", ekimena ez dalako mitin ziklo bat, berba egin gura dabena berba egiteko eta entzun gura dabena entzuteko gunea baino. "Edozein kasutan, helburu nagusia topagunea sortzea da galderak egiteko, zalantzak, ideak edo kezak planteetako, eretxiak adierazteko eta, egoki jotzen bada, proposamen aberasgarriak egiteko".

Arantxa Tapia Ekonomiaren

ZEBERIO

Metal Jaia bagilaren 2an izango da**Erredakzioa**

Bagilaren 2rako, barikua, heavy metal musikearen jaia antolatu dabe Zeberion. Bertsoak eta metala buztartuko ditu jaiak. Lion Heart, Niketz eta Sabotaje taldeak eskeiniko dabez kontzertuak Zeberioko plazan. Jaia, 19:00etan hasiko da bertso-merienda bategaz, eta 00:30etik aurrera Batzokian egingo dan Jebi Jaiagaz amaituko da.

Igaz be egon zan Lion Heart taldea Zeberion, eta aurten be, taldekoak eta antolatzaileak jaialdi honetan kontzertua jotea gura izan dabe. Iluntzeko 20:00etan izango da. Ondoren, 21:30ean, euskerazko metala entzuteko aukerea egongo da Niketz, Etxebarriko taldearen eskutik. Azkenik, 23:00etan, Sabotaje Bilboko itsasadarraren eskuinaldean 1983an sortutako talde beternoaren txandea izango da.

Bertsomeriendan, Arrigorriaga eta Zeberioko bertsolariak buztartuko dabez bertsoak eta musika heavya, hiru kontzertuen aurretik. Gauari amaierara emoteko barriz, Jebi Jaia ospatuko dabe Batzokian.

Zeberio Metal Jaialdia, Zeberioko Jebi Batzordeak, Zeberio Sarean-ek eta Zeberioko Udalak antolatu dabe.

Garapena eta Azpiegituretako sailburua baino lehenago, Josu Erko- reka, Eusko Jaurlaritzako bozeroale eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua; Aitor Esteban, Kongresuko EAJ-PNV taldeko bozeroalea, eta Jonan Fernandez, Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusia izan ziran Igorre, Zeanuri eta Diman, hurrengo hurrengo.



Arantxa Tapia.

ARANTZAZU

San Adrian Fest Arantzazun hilaren 27an

Erredakzioa

Arantzazuko Elizportaleko Gazte Asanbladak, Arantzazuko Kultur Batzordea eta Argiñatx Mendi Elkar- tearen laguntzeagaz, San Adiran er- mitearen inguruan egun osoko jaia antolatu dau maiatzaren 27rako.

Goizeko 10:30ean, Arantzazuko plazan batu eta Argiñatxera mendi martxea egingo dabe. Han trikital- riak ipiniko dabe jaigiroa. Bazkaria norberak eroan behar dau. Arrastiko 17:30ean Igel Txapelketea egongo da eta ondoren, Illart Gumuziok eta Aimar Fernandezek osotuten daben Bieskas taldeak kontzertu akustikoa eskeiniko dau. Zozketea egin ostean, 20:00etan, hiru taldek eskeiniko dabe kontzertua: Akabuk, Zeinkek eta Ostabek, hain zuzen be.



DIMA

Jentilak Diman 2017 ez da egingo maiatzaren 20an

Erredakzioa

Jentilak Diman 2017 ikuskizuna ez da egingo iragarrita egoan le- gez maiatzaren 20an. Baltzolako koben inguruan egitekoa zan ibi- laldia momentuz bertan behera itxi dabe antolatzaileak, baimena dala eta, Udalagaz izan daben de- sadostaunagaitik.

Dana dala, antolatzaileak ja- rraituten dabe Udalagaz akordu batera heltzeako ahaleginetan eta akordua lortzeako esperantzeagaz baikor agertu dira. "Azken batza- rrean etorkizunerako oinarriak ipini dira, Udalak Jentilak Diman eki- menaren helburuakaz bat egiten dauala jakinarazo ostean", dinoe.

Hori dala-eta, aurten bertan ibilaldi mitologikoa egiteko "itxa- ropena" ez dabe galdu.

AREATZA

Blues & Beer Nazinoarteko Jaialdia hile amaieran izango da Areatzan

Erredakzioa

Maiatzaren 24tik 27ra, Blues and Beer Areatzako Nazioarteko Jaial- dia antolatu dabe hainbat alkartek, garagardoa eta blues musikea jaialdi baten batzeako asmoz. Jaial- dian, Basqueland Brewing Project garagardo lantegiko garagardoak zerbitzatuko dira; hau da, Euskal Herrian ekoiztutako zerbezak. AGE Beerllaro, Areatzako Garagardogile Elkartek; Areatzako Tabernarien Elkartek, Udalak eta AKKBk anto- latu dabe Blues and Beer jaialdia.

Areatza herri musikazalea izan- da, musika jaialdi baten barruan antolatu gura izan dabe gara- gardoaren jaia eta antolatzaileak blues musikako kontzertuak jo ebezan egoki horretarako. Antola- tzaileen esanetan, "Blues and Beer jaialdiaren helburua da, kalidadea ardatz hartuta, Areatza eta Arratia, Euskal Herriko gargardoan eta jasangarritasunean oinarritutako jaialdi baten bitartez danon ahotan ipintea; urte gixitan erreferente bat izan daiteken jaialdia sortuz. Horregaitik puntako taldeak eka- rriko doguz, Travellin' Brothers eta Blue Fever berbarako; lehen maila- ko garagardoa, Elcano, Arzak edo Berasategik erabilten dabena, eta lehen mailako janaria, Julen Baz- en Eskatza ta mahatsa Foodtruck- agaz, jaialdirako beren-beregi

egindako menu berezi bategaz". Baz Estaduko Pintxo Lehiaketako finalista izan zan 2015ean.

Barikuan, Blue Fever eta Trave- llin' Brothers taldeak emongo da- bez kontzertuak. Blue Fever, blues munduko artista handienakaz kolaborazioak egindako mu- sikoakaz osotutako taldea da. Aur- ten, bere 25. urteurrena ospatute- ko kontzertu berezia antolatu dau. Travellin' Brothers, Leioako taldeak, estaduko eta atzerriko blues jaialdi gehienetan parte hartzean dau, eta Euskal Herriko blues munduko talde erreferente bihurtu da. Zapa- tuan beste hiru talderen musikea izango da entzungai: Sonic Free Station, Last Fair Deal eta The Pushermen taldeenak, hain zu- zen be. Lehenak blues munduko bersinoak eta kantu propioak jo- ten dabez. Last Fair Deal taldeak aurten garagarrean Mundakako jaialdian parte hartuko dau, eta Areatzan taldeak egiten dituan Rory Gallagher-en bersinoak le- henago entzuteko aukerea izango da. Funk estiloko The Pushermen taldeak emongo deutso amaierera Jaialdiari.

Holan, maiatzaren 24tik 27ra, pasa dan gizaldi hasikeran Estadu Batuetako hegoaldeko estadietan afroamerikarrak sortutako soinuak beteko ditue Areatzako kaleak eta egarria kentzeako, Euskal Herrian



MIATZAK 24, ASTEAZKENA	MIATZAK 27, LAURONGA
19:00 Kontzertuak CANTOARTEK Areatza eta Arratia herriko elkar- tearen laguntzeagaz antolatutako kontzertuak.	19:00 Kontzertuak Batzordea eta Argiñatx Mendi Elkar- tearen laguntzeagaz antolatutako kontzertuak.
21:00 "El Blues y la cultura popular del siglo XX" Hiru taldeak: Blue Fever, Travellin' Brothers eta The Pushermen.	21:00 Kontzertuak Blue Fever, Travellin' Brothers eta The Pushermen.
MIATZAK 25, OSTEGIA	MIATZAK 26, BARIKUA
19:00 Kontzertuak Blue Fever, Travellin' Brothers eta The Pushermen.	19:00 Kontzertuak Blue Fever, Travellin' Brothers eta The Pushermen.
21:00 Kontzertuak Blue Fever, Travellin' Brothers eta The Pushermen.	21:00 Kontzertuak Blue Fever, Travellin' Brothers eta The Pushermen.

egindako garagardoa egongo da bazter guztietan, Munchen-go Oktoberfest garagardoaren jain legez.

Antolakuntzak bertaratu gura diranentzat autobusa be antolatu dau zapaturako, hilak 27, doban. Galdakaotik urtengo da goizeko 11:30ean, 11:45ean Usansolotik pasauko da, 12:00etan Lemoan hartu ahal izango da, 12:15ean Igorren eta Arantzazun 12:30ean. Bueltako autobusak 02:00etan urtengo dau Areatzatik.

Egitaraua

Maiatzak 24, eguaztena

10:00etan, kontzertu didaktikoa Castigators taldeagaz, Areatza eta Zeanuriko eskoletako umeentzat, udaletxeko Areto Nagusian.

19:00etan, berbaldia "El blues y la cultura popular del siglo XX". Hizla- ria: Carlos Sagi. Udaletxeko Areto Nagusian.

Berbaldiaren ostean, Blues and Beer jaialdiaren eta Basqueland

Brewing Project-en garagardoan aurkezpena.

Maiatzak 26, barikua

19:00etan, Castigators Areatzako kaleetan zehar.

20:30ean, *pröst* (topa).

21:30ean, kontzertuak: Blue Fever (Frantzia/Ingalaterra) eta Travellin' Brothers (Euskal Herria).

Maiatzak 27, zapatua

12:30ean, kainak zerbitzatzekoak zabaldu. Errefujiaduen aldeko alkartasun kaineroa.

13:30ean, Dj Alai.

17:00etan, Munduko I. Garagardo Kupel Jaurtiketa Lehiaketea.

18:00etan, Sonic Free Station tal- dea.

20:00etan, Last Fair Deal (Rory Gallagher-en tributu taldea).

21:00etan, errifearen zozketea.

22:00etan, The Pushermen tal- dea.

Eguerdian eta gauean, Eskatza ta mahatsa Foodtruck-a egongo da.

IGORRE

Zarraoak, Biurrunek eta Arbuluk erabagiteko eskubideaz egingo dabe berba Igorren

Erredakzioa

Igorreko Gure Esku Dago taldeak "Igorren ebatzi" izena hartu eta hasi da beharrea 2018an herri galdeketea egiteko helburuagaz. Igorretarrak horren garrantzia- ren jaube izan daitezcan eta pro- zesuan inpliketako, "Ebazteak egiten gaituelako herri" izeneko berbaldia antolatu dabe maiatza- ren 25erako, arrastiko 19:30ean, Kultur Etxean. Hizlariak, Iñaki Zarraoa EAJ-PNVkoa, Garbiñe Biurrun EAEko Auzitegi Nagusiko magistradua eta Ibon Arbulu Sor- tukoa izango dira. Iratxe Etxebarria

kazetari igorretarrak jardungo dau aurkezle lanetan.

Berbaldian hizlari bakotzak 20 bat minutuz egingo dau berba eta gero jentearen itaunak erantzungo dabez. Hilaren 31n, Igorreko Gure Esku Dago taldeak batzar zabala egingo dau bideorra zehaztuteko eta jentea prozesura batzeako. Prozesu hone- tan, alkartea sortu, sinadura bilketea egin eta 1979tik hona herrian izan- dako alkate eta zinegotzi guztiak ba- tzean dituan ekitaldia egingo dabez, besteak beste. Taldekoak ekimen bakotzeko datak eta galdeketerako itauna ebatzi beharko dabe, baita hau guztia finantzietako modua be.

Taldea sendotzen

Igorreko Gure Esku taldea, Arra- tiako beste herrietako talde gehienak legez, 2014ko giza ka- tearen inguruan sortu zan. Talde txikia izan dala orain arte, baina aspaldi honetan jente barria eta ideologikoki diferentea batu dala dinoe taldeko partaideak. Dana dala, hurrengo ekintzetan taldea sendotzea eta Erabakitze-ko Es- kubidearen gainean eztabaidatzen

hastea espero dabe Igorrekoak.

Erabakitze prest

"Erabakitze prest" izenagaz, Gure Esku Dago mobilizazio nazionala eta herritarren itauna- ren aurkezpena antolatu dauz ba- gilarren 10ean Bilbon. Hitzordua, 17:30ean da, Euskadi plazatik Eliptika plazara. Arratiako Gure Esku Dago taldeak parte har- tuko dabe bertan.

Ebazteak egiten gaituelako herri...



Aurkezlea: Iratxe Etxebarria

GURE ESKU DAGO. GALDEKETEA

Ilusinoa eta %55,16ko partaidetzea Zeanuriko Gure Esku Dagoren galdeketa

Erredakzioa

1.057 lagunek emon eikien botoa eta 583 boto jaso ziran, 577 baliadun eta 6 baliobako. "Euskal Herri independente bateko herritarra izan gure dozu" itaunari, baietz erantzun eutsien 532 herritarrek, ezetz 15ek eta 30ek boto zuria emon eben.

Goiz hasi zan eguna talde sustatzaile eta boluntarioentzat, 07:30ean, hain zuzen. Areatoa apaintzeko eta atzeneko ikutuak emoteko geratu ziran. Jai itxurea aurreko egunetatik hartuta eukan herriak. Mahaiak, aulkiak, hautes-tontzia, botoak, informatikoak orde-nagailuagaz... dana prest egon zan jentea botoa emoten hasi orduko.

Egunean zehar, alkate eta zinegotziak, merkatariak, unibersitari-
orioak, jubiladuak... jentea hurre-ratuten joan zan bere botoagaz eretxia emoten. "Inork ez eban huts egin gura eta horren adibide izan leiteke, azkolari bat bere tres-nagaz bozkagunean agertu izana, edo lehenengo aldiz bozkatzan eben gazte batzuek *la ola* egin euskuela" dinoe antolatzaileak.

Ekitaldi nagusian, Areatzak lekukoa hartu eban. Hautestontziaz gainera ilusinoa be pasau eutseela lekukoagaz batera dinoe Zeanurikoak. Ekitaldiaren aurretik, Arratiako talde bat kolorez bete-ta eta jantzan, plazan sartu zan. Eskilaretan talde sustatzaileko guztiak egozan, askotan lan isila egindakoak; baita Dimako ordezkariak be, igaz herri galdeketea egin ebenak.

Bozketea jai giro ederrean gauzatu zan eta era guztietako ekimenak ez ziran faltau: umeentzako tailerrak, bertsolariak, bazkari herrikoia, herri kirolak, Gontzal Mendibilen bazkalosteko kantuak, pelota partidua, txokolatada, txosnea... Guztiak, boluntarioen lanari esker.

Lehenengo olatu handia

Maiatzaren 7an, Gure Esku Dago Erabakitze Eskubidearen aldeko herri ekimenak, egin ebazan herri galdeketa 247.812 persona egon ziran deituta, eta 63.237k emon eben botoa; hau da, %25,52k. Porzentaje desbardinetan eta modu diferenteetan planteata, herritarrak ea Euskal Herria estadu independentea izatea gura eben itaunari erantzun eutsien 52 herritan: Deba, Eibar, Elgoibar, Itziar, Mutriku, Soraluze, Abadiño, Durango, Elorrio, Zaldibar, Zornotza, Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Lekeitio,

Diman jasotako lekukoa Areatzari pasau eutsan Zeanurik maiatzaren 7an, independentziaren herri galdeketea egin ostean. Lehen olatu handian egon zan Zeanuri. Parte hartzea %55,16koa izan zan.



Maiatzaren 7ko galdeketa argazkiak dagoz 8. eta 9. orrialdeetan. Argazkiak Miren Idigoresek eta Gaure Eskuetan-ek bialdu ditue.



Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Ondarroa, Ziortza-Bolibar, Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Jatabe, Meñaka, Mungia, Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz, Aizarnazabal, Azkoitia, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoia, Zumaia, Lasarte-Oria, Legutio, Orozko, Urkabustaiz, Usurbil, Zubietta eta Zeanurin, hain zuzen be.



Bozketea jai giro ederrean gauzatu zan eta era guztietako ekimenak ez ziran faltau



GAURE ESKUETAN ETA MAIATZAREN 7A

"Oso pozik gagoz, emozioari eutsi ezinda, eta herriari esker. Mila esker Zeanuri, domekakoa sekulakoa izan da". Holan laburtu daiteke pasa dan maiatzaren 7a antolatuten egon ginanok komentetan gendua. Dan-dana ondo atera zalako, eguraldiak lagundu ebalako, eta emoitzeagaz Euskal Herri independente bateko herritarra izateko gogoak ondo baino hobeto erantzun ebalako.

Erabakiteko eskubidearen gaia mahai gainean jarri dogu, amets bat edo aldarrikapen hutsa izatetik errealidade izatera mobiduz. Gai izan gara horretaz berba egiteko, eztabaidatzeko, oinarriak eta galdera bat adosteko, errespetuz, alkarrerri entzunez. Zenbat bider esan deuskue galdeketak herria zatitzen dauala! Baina Zeanurin ikusi dogu hori ez dala holan, ariketa demokratikoak herria kohesionau eta batzean daualako.

Batek baino gehiagok galdetu deusku ea

onak izen diran emoitzak. Erantzuna, oso erreza da, ezin hobeak izan dira-eta. Nork pentsauko leuke orain dala sei hilabete gure herriko %25a baino gehiago, herri galdeketa baten alde, euren datuak emoteko prest egongo zala? edo 1979tik gaur arte aukeratutako hautetsiak batera eskuz lotuta argazki baten agertzeko prest? Nork sinatuko eban emoitzak, Dima edo Larrabetzukoak bestekoak izango zirala?

Bide honetan adosgune zabalak lortu dira, herritarren benetako ituna eta inplikazioa, auzolana egiteko sinesmena, oihalak eta taloak, zeramikea eta jolasa, bazkaria eta batzarrak, botoak eta kafeak, barreak eta ilusinoa.

Zorionak guztioi!!



%100 akustikoa
Maiatzak 20
IemoaKUSTIKfest2017
20:00 GAITETIKIAN ENPLIGED
◆◆ HIGHLIGHTS ◆◆
19:00 ATXETA **MOBYDICK - ESTANKONA - MARCO CILKER** 19:00 KRESALA
19:00 KULTURGIUNEKO KANTIA **MARIA RIVERO - HOTEL VALMONT** 19:00 ERRIK ALO ATXERPEA
19:00 LIBREKATZEA **KARLA IMBERT**

MENDI LASTERKETEAK

Bagilaren 1ean zabalduko da Gorbeia Suzien Ternua lasterketako izen emotea

Urri bigarrenaren 7an egingo da Gorbeia Suzien

Ternua mendi lasterketea, Europako Txapelketa izango da aurten, Sky modalidadean.

Erredakzinoa

Atzen 5 urteotan legez, nazioarteko eta Euskal Herriko mendi lasterkari onenak biltzea espero dau antolakuntzak. Aurten izen emote sistema aldatzea ebatzi dabe eta zozketa bidez bananduko dira lasterketa nagusiko dorsalak. Zozketearen bidez 450 dorsal bananduko dira. Antolakuntzak bere erispidearen arabera 100 dorsal bananduko ditu (eliteko korrikalariak, konpromisoak, laguntzaileak, zirkuitua osatzen dabiltzanak, eta abar). Eta ISFk 50 dorsal izango ditu Europako Txapelketa konpromisoetarako.

Kirolprobak-en webgunean, (www.kirolprobak.com) zabalduko dira aurrez aldetiko izen emoteak bagilaren 1ean goizeko 08:00etan, eta bagilaren 4ko gaueko 22:00etan zarratuko dira. Aurrez aldetik izena emoten dauan bakotzak zozketarako zenbaki bat izango dau. Dorsalen zozketea bagilaren 5ean izango da.

Aurreko urteetan dorsala izan dabena, dorsala izandako urte bakotxagaitik beste zenbaki bat izango dabe zozketan. Arratiarrak eta Suzien Mendi Klubeko bazkideak be, beste zenbaki bana izango dabe zozketan.

Arratiarrak, izen emotea zarratu baino lehenago, gorbeiasuzien@gmail.com-era errolda ziurtagiria bialdu beharko dabe.

Zozketea Zeanuriko udaletxean izango da eta ateratako zenbakien ordena errespetauz, lehenengo 450ek dorsala izango dabe.

Hurrengoak itxaron zerrendan geratuko dira zozketan irteerako ordena berean. Dorsalak personalak eta transferiezinak dira, beraz norberak batu behar dau berea. Abuztuaren 31rarte, buelta ahal izango dira diruaren %80a berreskuratuz eta itxaron zerrendako korrikalari batek bere lekua hartzean badau dorsalak urri lehenengoaren 30erarte bueltatu ahal izango dira diruaren %70 berreskuratuta.

Zozketearen ostean, dorsala egokitu jakienak, 5 egun daukiez izen emotea gauzatzeko.



Andrea Gil, igazko irabazlea andrazkoetan. Argazkia. Unai Sorrairain.

MENDI BIZIKLETEAK

Zeberio XTrem Mendi Bizikleta Martxan izena emon daiteke**Erredakzinoa**

Bagilaren 4ean izango dan VI. Zeberio XTrem Mendi Bizikleta Martxan izena emon daiteke bagilaren 1era arte. Hiru ibilbide dagoz aukeran, XTrem 43 km.koa, luzea 31 km.koa eta laburra 12 km.koa.

Urtekerea goizeko 09:00etan Ermitabarratik izango da.

Izena, bagilaren 1era arte, rockthesport.com webgunean edo Garribikes dendan emon daiteke 15 euroko prezioan. Egunean bertan, probaren aurretik be emon daiteke izena 20 euro ordainduta.



publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

**Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com**

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

**Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)**

**Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net**

www.alkizabal.net

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA

MILIA HERRIKOIA

Andren osasunaren aldeko Mila Herrikoia Lemoan

Erredakzioa

Maiatzaren 28an andren osasunaren aldeko eguna dala eta, Lemoako Udalak, osasuna eta kirola buztartuz, milia herrikoia antolatu dau. Lasterketaldia 12:00etan abiatuko da Karabie Gaztetxearen paretik eta partaideak milia batek dituan 1.609 m. egingo ditue galapan.

Edonork hartu daike parte; andrak zein gizonak; gazteak zein zaharrak; atletak, amateurak edo hain sasoi onean ez dagozanak. Izan be, helburua espazio publikoan kirola egitea eta ondo pasetea da, kirolak eta ondo pasetak bizi kalidadea hobetuten dabe-eta.

Osasun eskubidea

Bizitza osoan zehar osasuna izateko eskubidea, giza eskubidea da. Baina osasuna ez da biologikoa bakarrik, faktore psikosozialak be eragin handia daukie eta andrak



gizartean daukien lekua erabakigarria da euren osasunerako. Izan be, indarkeria matxistek, pobrezia eta baliabideen banaketaren desbardintasunak sano eragin kaltegarria daukie mundu zabaleko andren osasunean. Lemoako Udalak andren osasunaren alde egin gura dau ekimen honegaz.

FUTBOLA

Arratia Lurraldeko Ohorezko Mailara

Erredakzioa

Arratiako gizonzkoen taldeak oindino liga amaituteko partidu bat falta dan arren mailaz igotea lortu dau. Aprilaren 29an, LemoaHarrobik egindako bide bera jarraitu dau Igorreko taldeak be. Arratiak Abadiñoren kontra jokatu eban Igorren maiatzaren 6an, eta partidu hori irabaztea nahiko eukan mailaz igoteko. 1 eta 0 irabazi eban partidua Arratiak. Ostean, jokalaria kamioi baten igonda ospatu eben igorea herriatik zehar.

Hurrengo partiduan Arratiak ez eban ezer jokatzen eta hutsna bardindu eban Etxebarri taldeagaz maiatzaren 13an.

Atzen partidua Igorren jokatuko dau Arratiak Dinamo San Juanen kontra hilaren 19an, barikua, 20:00etan.

Arratia B taldeak osterera amaitu dau ligea eta seigarren postuan amaitu dau denporaldia 41 puntugaz.

Asier Etxezarraga Arratiako Futbol Taldearen presidentearen esa-

netan "sano balorazio positiboa egiten dogu, helburua ez zan igotea baina lortu dogu. Sano talde lehiakor eta konprometidua euki dogu, azpimarratu behar da 22 jokalaritik 12 arratiarrak dirala, hurretatik 4 Igorrekoak. Azpimarratu be, gure entrenatzaileen lana, eurak barik, hau ez zan posible izango eta, zuzendaritza partez zorianak danori, Aitor Garmendia, Argoitz Argote, Xabi Garcia eta Ibai Zuberoni". Etxezarragak Arratiako

andrazkoen denporaldiaren gainean be zera gaineratu gura izan dau; "pena handia daukagu gure taldeak Liga Nazionalako kategoria galdu egin daualako, baina zoriondu gura doguz danak, batez be David Anta entrenatzailea. Taldea barrizuten gabiz eta ia lortzean dogun barriro be Bigarren Mailara igotea, eta Igorre eta Arratiako izena Euskal Herrikan kanpora barriro be eroaten dogun. Nesken taldeaz sano harro gagoz".



Arratiako jokalaria igorea ospatuten.

FUTBOLA

Naia Totorika: "Datorren denporaldirako helburua Espainiako Bigarren Mailara bueltetea da"

2016-2017 denporaldian, Espainiako Bigarren Mailan jokatu dabe Arratia Futbol Taldeko andrazkoak. Ezin izan deusie mailari eutsi eta hurrengo denporaldian Euskal Ligara bueltauko dira. Hasikera baten, jokalaria maila hori handi geratuko jakiela pentsau eben arren, ia atzen momentura arte maila mantenduteko aukerak izan ditue eta ligea luzeagoa izan balitz, ez zirala bajatuko uste dau Naia Totorika taldeko kapitainak. Izan be, partiduak jokatu ahala, euren jokoaren mailaren gaineko konfiantzea sendotuz joan zan.

Erredakzioa

Ze aldaketa ekarri deusaz taldeari Espainiako Bigarren Mailan jokatuteak?

Aldaketarik handiena, jokoaren maila izan da. Euskal Ligearen aldean diferentzia itzela egon da. Beste desbardintasun bat biajeak apur bat luzeagoak izan dirala. Ordura arte Euskal Herrian ziran partiduak eta denporaldi honetan, Logroñon, Errioxan, Burgosen... jokatu dogu.

Bigarren Mailan ibili ostean, zuen jokoa aldatu egin da?

Batez be ikasi dogu talde moduan jokatu behar dogula. Holango kategoria baten, beste taldeetako jokalaria eta taldeak beti edo ia beti, gureak baino hobekiago izango dira. Orduan, zezer egin ahal izateko, talde moduan egin behar da.

Bakarka egin ezker... txarto!

Eta ikasi be egin dogu, askotan pentsetan doguna baino askoz gehiago emon ahal dogula. Ezinezkoa dala pentsetan dozuna, burrukan egin ezker, eta danak saiatu ezker, askotan, egin daiteke.

Holan sentidu zinien, ezta? Hasikera pentsetan zenduen ezingo zendueta ezer egin eta azkenean uste baino hobeto ibili zarie.

Bai. Nik hasikera baten, "jo!, non sartu garan!" esaten neutsan neure buruari. Baina behin sartuta, esan genduan hemen gagozanez, goazen ondo egiten.

Zelango babesu euki dozue? Bigarren Mailan egotean igarri dozue interes handiagoko erakunde eta publikoaren aldetik?

Nik babesleen gainean ez dakit

ezer. Baina egin genduan berba presidentearagaz eta esan euskun biajeen aldetik-eta, lasai egoteko, klubak ordainduko ebazala, ez zala egongo ezelango arazorik. Hasikeratik ipini euskun autobusa eta kanpoan jokatu izan dogunean bazkaria be bai.

Publiko aldetik, jente gehiago etorri da. Amaieran batez be. Badaukaguz jarraitzaile batzuk, beti ibiltzen diranak jente animetan eta amaieran mobidu egin dira pilo bat: kartelak ipini dabez, kamisetak jantzita etorri... Bai, jentea etorri da. Eta Athletic bat etorri danean, edo izena daukan ekiporen baten kontra jokatu izan dogunean, beste urte batzuetan baino jente gehiago egon da publikoan.

Futbol jokalaria gizonak ala andrazkoak izan, desbardintasun itzela dago jokalaria

Ian baldintzetan. 2016an Espainiako Futbol Federazioak andrazkoen futbola profesionalizetako pausak emoten hasiko dirala iragarri eban. Igarri dozue ezer?

Oindino klub guztiak ez dira profesionalak. Orain dala hiruzpalau urte, klub batzuk hasi ziran jokalariai kontratu profesionalak egiten, kotizetan, eta abar. Bartzelona izan zan lehenengoa eta gero Athletic eta beste batzuk be hasi dira. Baina klub gehienak ez, eta seguru nago, Lehenengo Mailan be, askok jokatuten dabela ezer kobrau barik.

Egia da ikusten dala hobekuntza xoren bat, batez be klub handietan, baina asko falta da andren futbola profesionalizetako.

Zuek badaukazue kontratu edo soldatarik?

Ez, ez ez. Guk Federazioak fitxa



Naia Totorika.

beteten dogu. Eta listo. Ez dago beste aldaketarik.

Datorren denporaldian, Espainiako Federazioan egin beharrean, Euskal Federazioan egingo doguz fitxak.

Datorren denporaldian maila berreskuratzea izango da helburua, ezta?

Bai. Uste dot danon heburua dala, eta izan behar dala, Espainiako Bigarren Mailara bueltetea. Ikusi dogu Bigarren Mailan jokatuteko gai garala. Gure sensazioa izan da mantendu behar ginala. Uste dot badagozala talde batzuk gurea baino hobekiago ez diranak maila hurretan. Eta partidu batzuk gehiago izan baebazan ligeak, seguru salbauko ginala.

LIBURUA

**Juan Manuel Etxebarriaren
Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta
Esaundak liburu berrargitaratu
dau Labayru Ikastegiak****Erredakzioa**

Labayru Ikastegiak, 1995ean argitaratutako Juan Manuel Etxebarria Ayestaren *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak* berrargitaratu dau eta egileak berak eta Labayru Fundazinoko Zuzendariordeak, Igone Etxebarriak egingo dabe liburua-aren aurkezpena maiatzaren 25ean, arrastiko 19:00etan, Igorreko Kultur Etxean.

Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak agortuta egoan, eta Juan Manuel Etxebarriak 2016ko zementidian 1995ekoaren jarraipeneko

bigarren tomoa argitaratu ebanean, bigarrena eskuratu eben askok, lehenengoa be eskuratzea gura izan eben. Eskaera horri erantzuteko, Labayru Ikastegiak berrargitaratu egin dau lehenengo tomoa, eta orain liburu biak dagoz eskuragai.

Liburu bi honeetan Gorbeia inguruan egin dan bilketa etnografikorik luze, zehatz eta sakonena dago. "Etokizunean be eskuarteian izan daigun Gorbeialdeako herriaren bizi-jakintza euskera ederrean jasota. Heritik jasoa barriro doa herrira liburuon bidez" egilearen esanetan.



Maiatzak 25, eguna
19:00
IGORREko Kultur Etxea
(Lasarte Aretoa)

Aurkezpenean parte hartuko dabe:
• Juan Mansel Etxebarria, egilea
• Igone Etxebarria, Labayru Fundazioa



JESUS CANAS TARAVILLO
Tel. 94 630 92 20
jscanas@movistar.es
Gregorio Mendibil kalea, 12

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburetan pintxo bereziak

arratiako.zekorak@gmail.com
<http://santxisme.blogspot.com/>

LIBURUA

**Jürgen Langeren azken liburuaren
aurkezpena Zeberion, Prestamos en
Zeberio (Bizkaia) 1680-1804****Mikel Zabala**

Zeberio bere tesia gauzatzeko gunerik egokiena zala ebatzi ebanetik urte dezente pasau dira. Handik aurrera, Zeberio arlo akademikoa baino askoz gehiago izan da Jürgen Langerentzat. Ikertzaile alemaniar batek hain integrazino sakon eta naturala lortuko ebanik nekez pentsau eitekean orain dala hamarkada batzuk Arkulandara etorri zanean.

Urte honeen guztien ostean, Zeberio Udal Artxiboa beste inor gitik baino hobeto ezetuten daua la ondorioztatu daiteke, ezelango zalantza barik. Eta, Udal Artxiboa ezetik, baita Zeberio iragana ondo ulertuteko preminazkoak diran beste iturri batzuk be. Horren adierazbideak dira, besteak beste,

orain dala hogeitertirik gora argitara emondako *Economía rural tradicional en un valle vasco: sobre el desarrollo de estructuras mercantiles en Zeberio* izenburuko liburu, bere tesiaren emoitzarik nabarmenak laburbiltzen ebazana, eta horren jarraipentzat hartu daiteken *Prestamos en Zeberio (Bizkaia) 1680-1804* plazaratu barria be.

Azken liburu hau, hain zuzen be, pasa dan apirilaren 28an aurkeztu zan Ermitabarriko Taberna Zaharreko beheko solairuan, Zeberio Udalaren eskutik. Eta bertan idazlea eta zeberioztarren alkarren arteko konplizidade jatorra agerian gelditu zan. Sinesgaitza emoten badau be, datu estadistikoaren analisisian oinarritutako ikerketa baten emoitzak entzuteko aretoa bete-beteta egon zan. Eta, ildo beretik, Jürgen Lan-

gek ulergaitza izan eitekean arloa –zenbaki hotzez josita– zeberioztarren iragana ulertuteko baliabidea bihurtu eban. Orain dala hirurehun urteko paisajeak Zeberion, herri-tarren bizibideak eta elikadura, edota honeen guztien aldaketak denporan zehar. Bitxikeriak be baztertu barik: albaitariaren ibilbideak, genero-indarkeriaren adierazbide batzuen testuingurua, edota eguraldi aldaketak! Landutako gaiak konprenigarriak ezetik erakargarriak be bilakatu ebazan, ulergarritasuna eta zehaztasun zientifikoa maisutasunez buztartzen. Ez da harritzekoa, beraz, entzulegoan itzelezko interesa biztea berbaldian zehar. Aurkezpena amaitzean, publikoak jakinmin handiz galderak egin ebazan, eta baita liburu eskuratu be. Izan be, barra-barra sinatu eban berbaldiaren ondoren, eta berbaldia bertaratutako zeberioztarren eztabaidagaia bihurtu zan, tabernaren berotasun hurbilean luzaro iraun ebana.

Jürgen Langeren hurrengo lana oso bestelakoa iragartzen da: Zeberion girotutako eleberri historikoa. Orain arteko bere ikerlanakaz konparatuta, herriaren iraganari heltzeko oso hurbilketa desbardina, baina aurrekoak bezain mamitsu.

Hori irakurri ahal izateko beste hogeitertirik urte itxaro behar ez izatea espero daigun!



Iñaki Garcia Uribe, Juan Manuel Etxebarria, Montsi Petralanda, Jürgen Lange, Carlos Idirin eta Pruden Peña. Argazkia: Mauro Saravia.

BERTSOLARITZEA

**Reguibertso ekitaldiakaz Galizan jarraitu
eben Arratia Institutuko ikasleak****Illart Gumuzio**

Maiatzaren 11ko 08:15ak ziran gazte gehienak Institutura sartu eta 38 gazte patio atzekaldean egoan autobusera abiatu ziran. Maletetan, ondo pasetako gogoaz gainera, erri-ma, doinu eta hainbat musika tresna alkartu ebazan eta Igorre Santiagotik urruntzen dituan ia 600 km.ak egitera abiatu ziran bertso artean. Zazpi orduren ostean, euren helmugara heldu eta aterpetxean eroso jarzteagaz batera, Xunta, Coruña-ko Diputazioa eta Santiagoko Udaleko ordezkarien harrera izan eben.

Hurrengo egunean etorri zan biajerako ekintza izarra: lepo egoan mila ikusledun Auditorio da Galizan ospatu zan ekitaldian parte hartu eben eta. Bertan, Regueifa-

ren aldaera desbardinak ezetu eta bertso lagin batzuk ixteko aukerea izan eben. Arrastian, Galiza eta Euskal Herriko musika taldeak biltzean ebazan I. Boina & Txapela jaialdian egon ziran.

Zapatuan, euriak goizeko kalejireta bertan behera itxi arren, Santiagoko alde zaharra ikusi eta eguna "Festa das letras galegas"en amaitu eben domekako bueltako biajerako deskansetan joan baino lehen.



Arratiako gazteak As Catedrais-eko hondartzan.

ERAKUSKETEAK

Hilaren 12tik 31ra, Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan, *Yurre-Igorre 1936/1937 Badira laurogei udabarri* izenpean, urte haretako gertakizunen memoria jasoten dauan erakusketea egongo da.

1936ko gerra zelan bizi izan zan Igorren jasoten dau erakusketeak

Erredakzioa

Udalaren ekimenez Igorreko memoria ikertzen dabiz Ibai Pujana eta Ekain Pujana, Iintie alkartearen izenean, eta ikerketa hau egitean jasotako irudiak eta dokumentuak erakutsiko ditu erakusketeak. Aurkezpena maiatzaren 12an egin eben Beinat Anzola alkateak, Angel Larrea Iintie alkatetxoak eta Ibai eta Ekain Pujana egileak.

Erakusketa honek 1936 eta 1937 urteetara egiten dau biajea. Gerra Zibilaren hasieran igorretzarrak eukien ikuspegia emoten dau,

hainbat dokumentu eta artxiboren laguntzeagaz. Sasoi haretako Igorrerren markoa egin, herritarren egunerokotasuna erakutsi eta gerra egoera haretarako herriaren bilakaerea eta antolamendua azaltzen dauz. Gertakizunak hartzean dira gogoan, baina baita zendutako gudari eta zibilak be. Erakusketan agertzen dana 40 orri inguruko liburuxka baten jasoten da.

Maiatzaren 19an arrastian, Nevadako unibersidadeko Xabier Lrujo ikerlaria bertan egongo da eta berbaldia emongo dau Kultur Etxean. Ordua zehaztu barik dago.



ANTZERKIA

La zanja antzezlanaren Igorren hilaren 19an

Erredakzioa

Caminamos para crecer antzerki taldeak, *La zanja* antzezlanaren, gazteleraz, eskeiniko dau maiatzaren 19an, 20:00etan, Igorreko Kultur Etxean. Errefujiaduaren Laguntzarako Batzordea Euskadin, CEAR-eko boluntario eta erabiltzaileak sortutako antzerki taldea da Caminamos para crecer, eta euren esperientzietan oinarritzen da *La zanja* antzezlanaren, "egia deserosoak" kontauz. Foreren zu-

zendaritzapean 10 aktorek "egiaz betetako istorioak" taularatuko ditue Lasarte Aretoan.

Sinopsia:

Maria eta Ousmanne bikote bitxi, arraroa da. Maria, akaso, desorekatu samarra. Ousmanne, etsituta seguruenik. Alkarregaz esnatutako gauaren sakontasunean ontziratu gaitue. Errealidade, esperientzia, testigantzen programa bat. Benetako personakaz egingo dogu biajea, euren bene-



tako istorioakaz. Egiaz betetako personak, euren egia kontauko deuskuenak. Munduari enbarazu egiten deutsan egia.

KARABIE FEST

Karabie Fest lehengo Gaztetxe zaharreen

Erredakzioa

Lemoako Harriketarrak Gazte Asanbladak, maiatzaren 27rako Karabie Fest izeneko jaia antolatu dau Karabie zaharreen. Jolasak, jana eta musika ez dira faltauko.

Arrastiko 17:00etan Karabie Gaztetxean batuko dira Karabie zaharrerako ibilaldia alkarregaz egiteko. Jaia "Galolinpiada" izeneko jolasakaz hasiko da. Jolasen ondoren, Karabiganera bisita gidatua egingo dabe. Afaldutako txixi-burruntzia egingo dabe eta Gaztetxeko patxarara dastatzeko aukerea egongo da. Gauean,

BATbitaMAN Dj-ak ipiniko dau musika eta Bideorma egongo da. Jaira hurreratzen dan jenteari, jateko zeozer eroateko eskatuten deustie antolatzaileak, gero afalorduan danon artean konpartiduteko.

Karabie zaharra

Lemoako Gazte Asanbladak 1999 urtean sortu eban Karabie Gaztetxea. Harrobian egoan txabola bat hartu eben horretarako eta horregaitik ipini eutsen Karabie izena. Urtebete beranduago erre egin zan eta harrezkeroztik eskolak izandako Udalaren eraikineri aldatu ziran.



Kartela.

DUNBA

Eguzkitza Meabe Ikastetxeak bookcrossing-egaz bat egiten dau

JB Eguzkitza Meabe ikastetxeko ikasleak

Bookcrossing Zer da?

Euskeraz liburu gurutzaketa esan gura dau. Liburu bat leku publiko baten itxeko praktikea da, gura dauanak hartu eta irakurri dagian. Ekimena 2001 urtean hasi zan eta webgune bat ipini zan mar-txan, "askatutako" liburuen jarraipena egiteko.

Liburuak irakurten amaitzerakoan kalera bueltau behar da baina ez da zertan jatorrizko lekuan izan, beste hainbat lekutan itxi daiteke. Gaur egun bookcrossing-ak mundu osoko milaka

irakurle biltzean ditu.

Gure esperientzia

6. mailakook holango ekintza bat egin dogu eskolan. Lehenengo eta behin, Idoia, liburutegian lan egiten dauan behargina, etorri egin da eskolara eta bookcrossing ekintzaren inguruan berba egin deusku azalpen txiki bat emonez. Gero, bakoitxari plastikozko boltsa bana emon deusku eta bertan bookcrossing-eko pegatina batzuk pegatu doguz. Ondoren, liburuak banandu deuskuz eta liburuakaz batera azalpen orri bat be ipini dogu liburuaren azalean, topatzen dauanari liburuak zer helburu jarraitzen dauan azaltzeko.

Boltsetan sartu doguzanean, Lemoatik urtekerea egin dogu herriko hainbat lekutan liburuak

ixteko: eskolako sarreran, bolalekuan, parkean, Lemoako okindegian, San Ignazioko plazan, Gaztelekuan, Elizondon, BBKn, gasolindegiko atzeko parkean, tren geralekuan, autobus geltokian...

Hori egiterakoan liburu motak kontuan hartu doguz: haurrentzako liburuak, umeak sarritan egoten diran lekuetan eta nugu-



sien liburuak nagusiak gehiago joaten diran lekuetan.

Oso esperientzia eta ekintza polita izan da eta oso ondo pasau dogu hau egiten. Bookcrossing egitea oso idea ona iruditu jaku. Bakoitxak gustuko dauan liburu hartu daike ezer ordaindu barik eta, nahiz eta irakurtea oso gustuko ez izan, oso ekintza baliagarria da irakurzaletasuna bultzatzeko.

Animauko zara?



AGENDEA

MAIATZAK 16
ARRATIA

Hilaren 19ra arte, maiatzaren 27ko udalekuetan heziketa lantzeko prestakuntzarako izen emotea Arratiako Udalen Mankomunitatean.

BEDIA

16:30-19:30, bagilaren 2ra arte, jaietako paelletan parte hartzeako izen emotea liburutegian.

DIMA

Hilaren 19ra arte, udaleku irekietarako izen emotea ludotekan. Udalekuak garagarilaren 10etik 18ra edo 10etik 21era izango dira. Hilaren 26ra arte, garagarilaren 25etik 29rako gazteentzako abentura asterako izen emotea ludotekan.

IGORRE

Hilaren 31ra arte, *Yurre-Igorre 1936/1937 Badira larogei udabarri* erakusketea Kultur Etxean.

19:30ean, Urkuzu eta Garakoi auzuneetako, aurrekontu parte-hartzaileetako batzarra Urkuzuko txokoa.

Hilaren 26ra arte, herri udalekuetan izena emoteko epea Kultur Etxean.

LEMOA

Bagilaren 9ra arte, jaietarako Kartel Lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Udaletxean.

ZEANURI

Euskalduna Jauregiko maiatzaren 23ko operara edo maiatzaren 28ko umeen operara joateko autobuserako izena emoteko azken eguna udaletxean.

ZEBERIO

19:30ean, Udaleko langile, politikari eta Jai Batzordeko kideentzako Jai Berdintsuagoak tailerra Berdibidean-egaz udaletxeko 2. solairuan.

Bagilaren 30era arte, oinarriko informatika ikastarotetan izena emoteko epea. Udaletxean.

MAIATZAK 17

IGORRE

18:00etan, San Juan auzuneako aurrekontu parte-hartzaileetako batzarra bertako txokoa; 19:30ean, San Kristobalagoak bertako txokoa.

MAIATZAK 18

DIMA

18:30ean, Bizi plaza prozesu parte-hartzailearen emoitzen aurkezpena. Jubiladuenean.

IGORRE

18:00etan, gazteak aurrekontu parte-hartzaileetako batzarra Gaztebtxean; 19:30ean, Garbe eta Mikelekoak Gaztebtxean; 19:30ean, Erdiguneako eta Kirola eta Kulturakoak Kultur Etxean.

MAIATZAK 19

DIMA

Maite Franco ipuin kontalaria liburutegian.

19:30ean, Zamakola alkarteak antolatuta, Manu Aurrekoetxearen berbaldia "Kimika naturalaren erabilera Dimako baserrietan", Jubiladuenean.

IGORRE

20:00etan, Arratiako OEEk antolatuta, *La zanja* antzezlanak Kultur Etxean.

LEMOA

Ganzabalek antolatuta, luzaketa tailerra.

19:00etan, *Mobilaren umea* filma Gaztebtxean.

MAIATZAK 20

AREATZA

08:00etan, Gorbeia Parke Naturalak eta Lamino Mendi Taldeak antolatuta, zeharkaldia Ubide-Urigoiti (Orozko). Izena hilaren 16an emon behar da 19:00etatik 20:00etara udaletxeko 3. solairuan.

20:00etan, *Musika Bakarrean* zikloa, Alejandro Aparicioen kontzertua Udal Aretoan.



"Inun"ek taldeagaz joko dau Igorren

Maiatzaren 26an, 21:00etan, Mikel Inunziaga "Inun"ek eta beste lau musikariek kontzertua eskeiniko dabe Igorreko Lasarte Aretoan. Inun-en, *Da nola* azken diskoko kanta joko ditue bertan. Inun-ek disko bi ditu kalean, *Berreginez* (2014) eta *Da nola* (2016). Bigarren disko honetan, hainbat euskal idazleren poemak musikatu ditu, tartean, Bernardo Atxaga, Jon Mikel Arano, Castillo Suarez, Miren Agur Meabe eta Itxaro Bordaren poemak.

Mikel Inunziagak berak eta Bihotz Gorospe igorrezarrak ipiniko deusie abotsa poemoi. Abotsa ipintez gainera Inunek gitarrea joko dau eta Gorospek perkusinoa. Eurekaz, Daniel Tomasek gitarrea joko dau, Ekain Alzolak, bajua eta Argibel Eubak, bateria.

20:00etan, Twin Room taldearen kontzertua The Quiet Comer-en.

IGORRE

22:00etan, zinea *El otro lado de la esperanza*.

LEMOA

Udalak antolatuta LemoaKUSTIKfest2017. Ikusi programea 5. orrialdean.

Ganzabalek antolatuta umeen urtekera. Atxarre.

ZEANURI

19:00etan, *Mobilaren umea* filma Kultur Etxean.

MAIATZAK 21

DIMA

Igitie Azokea.

IGORRE

17:00etan, zinea *Los superheroes*; 19:30ean, *El otro lado de la esperanza* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldearen urtekera, Andarto (1.074 m.)-Aranguren (1.149 m.)-Elorreta (1.141 m.).

MAIATZAK 22

IGORRE

10:30etik 12:30era, Andra Migraduen Topagunea. Miriam Herbon irakasleagaz Kultur Etxean.

MAIATZAK 23

AREATZA

18:00etan, Areatza eta Zeanuriko guraso alkarteak antolatuta, Arrate Emaldiren berbaldia "Teknologia barrien erabilera egokia haurtzaroen eta nerabazaroen" Udal Aretoan. Zaintza zerbitzua.

IGORRE

19:30ean, Cezala, Basauntz eta Basarte auzuneetako aurrekontu parte-hartzaileetako

batzarra udaletxeko Pleno Aretoan.

LEMOA

19:30ean, Arantxa Tapia, Eusko Jauriritzako Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburua, EAJ-PNVren *Arratiarakaz berbetan* zikloa. Jubiladuen etxearen gaineko aretoan.

ZEANURI

08:45ean, Jubiladuen alkarteak antolatuta urtekera. Balmaseda-Amurrio-Urduña. Autobus geralekuan.

ZEBERIO

17:30ean, Zainduz programearen barruan, menpekotasuna daukien pertsonen senide eta zaintzaileentzako erlajazio tailerra Beatriz de la Fuenteren eskutik, udaletxeko 2. solairuan.

MAIATZAK 24

AREATZA

10:00etan, kontzertu didaktikoa Castigatorts taldeagaz, Areatza eta Zeanuriko eskoletako umeentzat, udaletxeko Areto Nagusian; 19:00etan, Carlos Sagiren berbaldia "El blues y la cultura popular del siglo XX". Berbaldiaren ostean, Blues and Beer Nazioarteko Jaialdiaren eta Basqueland Brewing Project-en garagardoen aurkezpena.

BEDIA

17:30ean, 3 eta 11 urte bitarteko umeentzat, Liburumaleta ibiltaria Ondiz Mendizabalen eskutik.

IGORRE

17:00etan, Zulaibar Lanbide Ikastegiko Lanbide Heziketako orientazio jardunaldiak Kultur Etxean.

18:00etan, jubiladuak aurrekontu parte-hartzaileetako batzarra Jubiladuen txokoa.

MAIATZAK 25

IGORRE

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra Kultur Etxean.

19:00etan, Juan Manuel Etxebarriaren *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak* liburuaren bigarren argitalpenaren aurkezpena. Juan Manuel Etxebarria eta Igone Etxebarria. Kultur Etxean.

19:30ean, "Ebazteak egiten gaituelako herri..." berbaldia. Iñaki Zarragoa, Garbiñe Biurrun eta Ibon Arbulu. Kultur Etxean. GEDk antolatuta.

ZEANURI

18:30ean, Gorbeia Jubiladuen alkarteak antolatuta, Ana Badiola psikologoaren berbaldia. "Personen arteko harremanak: lagunen artean egotearen garrantzia" jubiladuen lokalean.

MAIATZAK 26

AREATZA

Blues & Beer. Ikusi programea 7. orrialdean.

BEDIA

22:00etan, zinea kalean *Igelak*. Plazan.

MAIATZAK 27

ARANTZAZU

10:00etatik 13:00etara, Andren Jabekuntza Eskolako Topaketea Kultur Gunean.

San Adrian Fest. Ikusi egitaraua 7. orrialdean. Elizportaleko Gazte Asanbladak antolatuta Arantzazuko Kultur Batzordea eta Argiñatx Mendi Alkartearen laguntzeagaz.

AREATZA

Blues & Beer. Ikusi programea 7. orrialdean.

ARTEA

21:00etan, Niño Bravo eta La Katiraren kontzertua Herriko Bentan.

IGORRE

10:00-14:00, AUMk antolatuta, udalekuetan hezikidetzeari lantzeko prestakuntza IKEn.

22:00etan, zinea *Fast and Furious 8*.

LEMOA

Larrabeitiko jaiak.

17:00etan hasita, Karabie Fest Karabie zaharrea.

MAIATZAK 28

IGORRE

17:00etan, zinea *Your Name*; 19:30ean, *Fast and Furious 8* Lasarte Aretoan.

LEMOA

12:00etan, andren osasunaren aldeko Milia Herrikoa. Gaztebe parean.

MAIATZAK 29

BEDIA

16:30-19:30, bagilaren 9ra arte, bagilaren 18ko Jubiladuen bazkarirako izen emotea liburutegian.

MAIATZAK 30

ZEBERIO

17:30ean, Zainduz programearen barruan, menpekotasuna daukien pertsonen senide eta zaintzaileentzako erlajazio tailerra Beatriz de la Fuenteren eskutik, udaletxeko 2. solairuan.

MAIATZAK 31

IGORRE

19:00etan, GEDren batzarra Kultur Etxean.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

ALOKATZEN DA

100 m² dituan lonjea alokatzen da Igorreko erdigunean. Bulego, txoko... edozertarako sano aproposa. Baldintza oso erakargarriak. Deitu 653 745 838 telefonora.

SALGAI

Gimnasioko materiala salgai. Bankadea, barra, mankuernak eta pesak. Arratian bizi bazara 50 euro garraioa barne. Telefonoa 657 707 725.

DANERIK

LAN ESKEINTZA

Lan eroso eta ondo ordaindutakoa eskeintzen dogu. Telekomunikazio enpresa baten, autonomo edo kolaboratzaileen bila gabiz, ordutegi barik eta komisino handiak pagauta. Deitu 662 568 707 telefonora.

TIRALARI BILA

Harriti andra proba taldea, taldean parte hartzeako Arratiako andra bila dabil. Eider 639 293 539.

LAN BILA

Bediako neska euskalduna persona helduak edo laguntza behar dabenak jagoteko prest agertzen da. Furgonetaduna. Telefonoa 688 647 074.

ETXEA ALOKAIRUAN

Etxe bat alokairuan Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea daukaz. Berokuntza txapeagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margari).

GARAJEA BEHAR DOT

Karabanea ixteko garajea behar dot Arratian. 7 metroko luzeerea eta 2,60 m.ko altuerrea. Deitu 675 712 841 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 **Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Mikel Inunziaga "Inun"en kontzerturako.**

Eñaut Intxaurraga (Zeanuri)
Ainhoa Zuluaga (Igorre)



2 **Axpe Goikoak emondako txakolin kutxatxo.**

Amaia Arauzo (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 14 urte eta ehundaka lagun.

ESKAINZA EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

ESKAINZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Etengabeko prestakuntza (Hobetuz)
- Langabetuentzako prestakuntza (Lanbide Ikastaroak)

Tel: 94 673 02 51
e-mail: info@fpzornotza.com
www.fpzornotza.com

DATAK

Aurrematrikula
ekainaren 5etik 16ra

Matrikula
uztailaren 13tik 19ra



Etorkizuneko Lan-Erronkeei Erantzuteko



Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

4 URTEK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE

MATRIKULA

Epea: maiatzean
- Infante kalea, 2. ARTEA
10:00etatik - 13:00 arte
Telefonoa: 94 631 73 52
- ONLINE

* **BERRIA:** 2 eta 3 urteko umeak, **IGORREN** zentralizatuta, matrikulatu ahal dira. Aita edo amarekin joan beharko dira klasera.



- Matrikulazioa ONLINE:
www.arratiakomusikaeskola.eu

arratia.musikaeskola@gmail.com

